





AUGUSTO ZUBIAGA

# MOLDATUTAKO JOKABIDEA

## Arazo diferentzialetara moldatu beharreko jokabideentzako eredu elektromekanikoa

Bi partehartzaileen ekintza integratuak ezinbestekoak dira mugimenduaren ilusio perzeptiboa sortu eta mugimendu horrek eragindako indar elektrostatikoa sortzen duen tramankulua mar-txan jartzeko.

Negoiazio prozedura mahai


batetan gauzatzen da. Mahaiaren bi aldetara gurpil hartzatu diferentzial baten bidez elkartutako bi ardatz mugiarazle aurkitzen ditugu. Diferenzial horrek aldebakar-retikako martxa ematea galerazten du.

Oinarrizko elkarreragite aukerak

hiru dira:elkarlaguntza,mugiez-korkeria eta elkardeusezte.

Lehenengo aukeran, negoziatzaileek beraien indarrak bateratzen dituzte norabide berdinean. Modu horretan, sistemaren gehienezko indar potentzialitatea lortzen dugu. Bigarren kasuan, elkarreragintzailetariko batek dagokion aldea geldiarazten du, besteari bere esfortzu eta kontura lana sortzeko aukera utziaz. Hirugarren kasuan, elkarreragintzaileek kontra egiten diote elkarri, eta horren ondorioz sortutako mugimenduak ez du etekinik. Aipatutako hiru aukera hauek *continuum* baten hiru ertzak bezala ulertu daitezke, tarteko modulazio guztiak ere eman daitezkelarik.

Gurpil hortzatu eta polea sistema baten bidez, elkarreragintzaileen integratutako energia horrek generatzaile elektrostático bikoitz bat jartzen du martxan. Indukzioa eta frikzioa direla medio, indar mekanikoa tensio elektriko bihurtzen da. Igurtzi eta eragipenaren bidez, gorpuen egoera neutroa desagitea lortzen dugu, indar positibo eta negatiboz kargaeraziz. Karga horiek, espreski prestatutako gordailu batzuetan biltzen ditugu. Gordailu horiek bata bestearengandik nahikoa gertu daudenean, edota tentsioa neurri




batetaraino iristen denean, tximista urdinak sortzen dira elkarren artean, tentsioa desagertaraziz. Tximista horiek, elkarreragintzaileentzako mingarria izan litekeen pilatutako indarra askatzen dute, balizko gainkargatzea ekidinez.

Indukzio disketan radialki zabalduetako zirrikitu batzuen bidez,

A large, circular, transparent disc, likely made of glass or plastic, is the central focus. It is mounted on a mechanical apparatus that includes a vertical rod and a curved handle. The disc is divided into a grid of sections, each containing text in Spanish. The text is arranged in a circular pattern, with some words appearing in the center and others along the edges. The words are in various fonts and sizes, and some are bolded. The overall appearance is that of a vintage psychological or social experiment apparatus. The background is dark and out of focus, highlighting the apparatus.

Indukzio disketan grabaturiko azalpen kontzeptual batzuek zera gogorarazten diete elkarreragintza-ileei: jarrera aukera desberdinek sor-erazten duten erantzun adaptatiboa. Bestalde, gurpil hortzatu difer-entzialetik igurzpen, eragipen eta itxurazko mugimendu diskeetarako mugimendu transmisio sistema gomazko lokarri batzuen bidezkoa denez gero, disken arteko kokapen erlatiboa aldakorra da, labaindura edo irristaduraren ondorioz.



hori gako esoterikoan uler liteke, hau da, aurrikuspen edota orakulo baten balioa izan lezake elkar-reragintzaileentzako.

